

KONTZERTU EKONOMIKOA. Idoia Zenarruzabeitia Ogasun sailburua hiru ahaldun nagusiekin bildu zen atzo Gasteizen

Erredakzioa | DONOSTIA

Cristobal Montoro Espainiako Gobernuako Ogasun ministroak atzo azpimarratu zuen EAEko aldundiekin Kontzertu Ekonomikoa berritzearen inguruan «akordio bat» ituntzea aztertzen ari dela Espainiako administrazioa, «Eusko Jaurlaritzarekin akordiorik hitzartu ezean».

Montorok, Radio Euskadiri egindako adierazpenetan, adierazi zuen Kongresuak bihar onartuko duela Kontzertu Ekonomikoaren luzapena, eta jarraian Senatuan eztabaidatuko dela. Hori eginez, datorren urtarrilaren 1etik aurrera «hutsune legala» ez dela izango azaldu zuen. Montorok, hala ere, azaldu zuen horrek ez duela esan nahi ezin dutela «negoziatzen jarraitu», eta datorren urtetik aurrera «Kontzertuaren Lege berria» izan. «Negoziatzen jarraitzea eta ahal den azkarren Lege berri bat izatea da Espainiako Gobernuaren interesa. Hori da asmoa, baita borondatea ere», gaineratu zuen.

Montorok nabarmendu zuenez, «administrazio zentrala aukera guztiak aztertzen ari da. Subiranotasun fiskala aldundietan dagoela kontuan izanik, aukera guztiak aztertuko ditugu; diputazioekin Kontzertuaren sistema bat adostea, besteak beste». Montorok erantsi zuenez, «Euskadiren benetako historian Foru Aldundiak izan dira Espainiako Gobernuarekin kontzertu bat izan dutenak, eta Kontzertuaren lege hori izan da estatuko eta aldundietako ogasunen arteko harremanak jaso dituenak. Horregatik aztertzen dugu aukera hori, EAEko Go-



JOSE HUESCA / EFE

Cristobal Montoro Espainiako Gobernuako Ogasun ministroa, herenegun Senatuan.

Zuzenean aldundiekin negoziatzea ez duela baztertzen dio Montorok

Aukera hori «Estatutuaren eta Konstituzioaren aurkakoa» dela azpimarratu du Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Josu Jon Imazek

bernuarekin akordioa lortzen ez badugu, beti ere».

Espainiako Ogasun ministroaren aburuz, «tamalgarria eta ez desiratua izango litzateke aldundiekin soilik akordioa adostea, baina orain arte ezin izan dugu Eusko Jaurlaritzarekin akordiorik lortu, nahiz eta ezberdintasunak oso handiak ez

izan. Akordioa ixteko borondate gehiago falta da».

Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak «zentzurik gabeko aukeratzat» jo zuen Montorok proposatutakoa. Imazen aburuz, «Estatutuaren eta Konstituzioaren aurkakoa da. EAEk zerga-sistema bakarra du, eta hiru aldundien bidez egi-

ten da. Beraz, proposamenak ez du ez bururik, ez hankarik». Jaurlaritzako eledunak, halaber, adierazi zuen Jaurlaritzak «akordioa lortzeko borondatea» duela.

Bilera Gasteizen

Xabier Arzalluz EAJko buruak, aldiz, atzo adierazi zuen Monto-

ESANAK

CRISTOBAL MONTORO

(Espainiako Ogasun ministroa)

«Subiranotasun fiskala aldundietan dagoenez, aukera guztiak aztertuko ditugu, baita haiekin akordioa ituntzea ere»

«Ezberdintasunak ez dira handiak. Akordioa adosteko borondate gehiago izatea falta da»

JOSU JON IMAZ

(Eusko Jaurlaritzako bozeramailea)

«Montoro ministroak egin proposamenak ez du ez bururik, ez hankarik»

XABIER ARZALLUZ

(EAJko lehendakaria)

«Diputazioekin hitzartu nahi badu, Montorok Rabanerarekin bakarrik hitz egingo du»

rok aldundiekin akordioa lortu nahi badu, «Rabanerarekin soilik» mintzatu dela.

Bestalde, Idoia Zenarruzabeitia Jaurlaritzako Ogasun sailburua aldundietako buruekin bildu zen atzo, Gasteizen, Ogasun Ministerioarekin egin beharreko bileraren aurrean behar jarrera zehazteko.

PSE-EE-REN KONFERENTZIA POLITIKOA. Gipuzkoako Batzordeak bere «ezinegona» azaldu du konferentziaren atzerapenagatik

Batzorde Eragilea ostiralean bilduko da aurkeztu diren barne txostenak aztertzeko

Agentziak | BILBO

PSE-EEren Batzorde Eragilea ostiralean bilduko da, arratsaldetik 16:30ean Gasteizen, otsailean egingo duen Konferentzia Politikoari begira aurkeztu diren barne txostenak eztabaidatzeko. Nicolas Redondo PSEko idazkari nagusiaren txostenaz gain, Jesus Egiguren idazkari nagusi ordeak aurkeztutakoa, Odon Elorza Donostiako alkatearena, eta Mario Onaindia eta Javier Rojok aurkeztutako beste bat jarriko dira mahai gainean.

Konferentzia Politikoak otsailera deitu izanak «ezinegon

handia» sortu du Gipuzkoako PSE-EErengan. Izan ere, atzo Gipuzkoako batzordea bildu zen Donostian, eta gehienek kritikatu egin zuten atzerapena. Odon Elorza Donostiako alkatearena konferentzia egin ezean Batzorde Nazionala deitzeko prest azaldu zen.

Aukera hori, baina, baztertu egin zuten Gipuzkoako PSE-EEko ordezkariak. Huertasen ustez, jarrera hori «oso errespetagarria izanik ere, herrialdeko batzordearen eskumenetik kanpo gelditzen da».

Atzerapenaren auzia, baina, konpondu egin da Nicolas Redondo prest azaldu zelako aste

honetan alderdiko batzorde eragilea biltzeko. «Ezinegona hor dago, baina idazkari nagusiarekin hitz egin ondoren, uste dut aste honetatik aurrera gaia desblokeatuta geldituko dela», esan zuen Huertasek.

Ares: «Sozialisten proiektua indartua aterako dela uste dut»

Rodolfo Ares PSEko batzorde eragileko koordinatzaileak adierazi zuenez, «Konferentzia Politikoak martxan jartzeko gai izango gara, Nicolas Redondori eskatu zioten txostenatik abiatuta, beste txostenak eztabaidatuko badira edo ez badira ere».

Konferentzia Politikoaren



JOSU ETXEBARRIOSTE

Nicolas Redondo Terreros.

ondoren EAEko sozialisten proiektu «aurrerakoia eta autonomista indartua» aterako dela uste du Ares. Bertan, «azken hauteskundeetako PSEren bo-

RODOLFO ARES

PSE-EEko Exekutibako koordinatzailea

«PSEk eremu zabala izan behar du euskal politikan proiektu aurrerakoi eta autonomista propio baten bidez»

tuemaileak eta etorkizuneko botoa eman diezagukeen beste asko» ordezkatuta egotea espero du.

«PSEk eremu zabala izan behar du euskal politikan proiektu aurrerakoi eta autonomista propio batekin eta nagusia izatearen bokazioarekin. PPK eta Ibarretxe lehendakariak ordezkatzen dutenaren alternatiba izan behar du», esan zuen.